

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Azterketa-eskubideengatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren ezarpenari hasierako onespena ematea

Udalbatzak, 2022ko azaroaren 11an egindako ezohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion azterketa-eskubideengatiko tasak arautzen dituen ordenantza ezartzeari. Jakinarazten da erabaki hori, aurrekari guztiekin, jendaurrean egongo dela udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza aldatzeko erabakia behin betiko onartu dela ulertuko da.

Izarra, 2022ko azaroaren 14a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA